



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## **2015EKO IRAILAREN 30EKO OHIKO UDALBATZA**

:

**NOIZ:** 2015eko irailaren 30an, arratsaldeko gaueko 21:00etan

**NON:** Ikaztegietako Udaletxeko Areto Nagusian

**BERTARATUAK:** Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

### Zinegotziak:

Xabat Ibareguren Lazkano (EH BILDU)  
Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)  
Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)  
Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)  
Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)  
Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

### **AZTERGAIK:**

- 1.- 2015eko uztailaren 8ko aktaren onarpena.
- 2.- Alkateak emandako ebazpenen kontu ematea.
- 3.- 2016. urteko herriko jai eguna abuztuaren 10a San Lorentzo eguna izendatzea.
- 4.- Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko udalaren ordezkarien ORDEZKOAK izendatzea.
- 5.- Eskari galderak.



6.- Berri emateak

**ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

**1.- 2015EKO UZTAILAREN 8KO AKTAREN ONARPENA.**

Alkateak galdetzen du ea korporazioko kideren batek baduen 2015eko uztailaren 8ko udalbatzako aktaren onarpenean inolako oharrik aurkezteko asmorik.

Bertaratutako zinegotziek, aho batez honako ERABAKIA hartzen dute:

**BAKARRA:** 2015eko uztailaren 8ko udalbatzako akta onartzea.

**2.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN KONTU EMATEA.**

Gaurko honetan 72/2015tik 117/2015rainoko ebazpenak irakurtzen dira.

**3.-2016. URTEKO HERRIKO JAI EGUNA ABUZTUAREN 10A SAN LORENTZO EGUNA IZENDATZEA.**

Kontutan izanda 118/2015 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2016. urteko jaiegunen egutegia onartzeko denak, non 12 egun zehaztu ditun jaiegun bezala eta Udal Bilkurei dagokiela herriko jaieguna zehaztea, bertaratutako zinegotziek aho batez zera erabakitzen dute:

**BAKARRA:** 2016. urteko herriko jai eguna abuztuaren 10a (asteazkena) San Lorentzo eguna izendatzea.



**4.- UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN ORDEZKARIEN ORDEZKOAK IZENDATZEA.**

Gai honen inguruan Alkateak egindako proposamena entzun ondoren, honako hau erabakitzen da EAJ/PNV alderdiaren abstentzioarekin:

BAKARRA: Segidan azaltzen den organora joateko udalaren ordezkariaren ORDEZKOA ondoren zehazten den zinegotzia izendatzea.

ZERBITZU AMANKOMUNATUAK	
UEMA	MIREN MENDIZABAL MACAZAGA

**5.- ESKARI GALDERAK.**

Ez dago eskari galderarik.

**6.- BERRI EMATEA**

Ez dago berri ematerik.

Horrenbestez, gaueko 21:45 orduak direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

**2015EKO IRAILAREN 30EKO OHIKO UDALBATZA**

⋮

Ikaztegietan 2015ko irailaren 30an

O.I.  
ALKATEA,

Idazkaria,